

## **2025EKO URTARRILAREN 27KO** **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren hogeita zazpian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2025eko urtarrilaren 13an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

### **II.- FAKTURAK.-**

Amagoia Naldaiz zinegotzia (EAJ-PNV) iritsi da bilkurara.

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 101 zenbakidun fakturen zerrenda, HIRUROGEITA BI MILA BEDERATZIREHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI euro ETA HAMASEI zentimokoa (62.968,16 €), eta 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zenbakidun zerrenda, HAMABI MILA BERREHUN ETA HAMAR euro ETA LAUROGEITA BI zentimokoa (12.210,82 €), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

### **III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

#### **Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 23-11-12 zenbakidun esped.: astean 2 orduetik 6 ordura pasatzea urtarrilaren 21etik aurrera, onuradunaren osasun egoerak okerrera egin duelako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-16 zenbakidun esped.: abenduaren 16tik aurrera etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 6 orduetik 13 ordura, erabiltzailearen osasun egoera okertu delako. Onuradunaren ekarpena % 2koa da.

- 24-11-19 zenbakidun esped.: abenduaren 20tik etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea astelehenetik larunbatera egunero ordu eta erdiz laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.

#### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 2024-01-008 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 2025-01-001 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 125 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren %100 da.
- 2025-01-002 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 120 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

#### Familia laguntzak.-

- 23-15-01 zenbakidun esped.: urtarriletik ekainera esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Horretarako aurrekontua 3.049 €-koa da.
- 23-15-02 zenbakidun esped.: familia esku-hartzeari baja ematea 2024ko abendutik.
- 23-15-04 zenbakidun esped.: urtarriletik otsailera esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Horretarako aurrekontua 1.078 €-koa da.

#### Epe luzean ingresaturik daudenentzako dirulaguntzak.-

- 25-18-01 zenbakidun esped.: garraiorako, 72,37 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura, bere semea bisitatzeko Arrasateko Aita Menni Ospitale Psikiatrikoan ingresaturik dagoelako.

#### Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: garraiorako 66,12 €-ko dirulaguntza ematea hilabetero urtarriletik aurrera, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

#### Joxemiel Barandiaran Udal kiroldetik bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 24-23-02 zenbakidun esped.: alabaren igeriketa ikastaroa ordaintzeko 37,54 €-ko dirulaguntza ematea. Ikastaroa 10 saiokoa da, urrian hasi eta urtarrilaren erdian amaitu da. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-24-01 zenbakidun esped.: alabaren marrazketa ikastaroa ordaintzeko (urria, azaroa eta abendua) 86,28 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-14 zenbakidun esped.: semearen urritik abendura bitarteko igeriketa ikastaroa ordaintzeko 75,06 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

#### IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Gerriko S.L. Liburudendari.-

Abenduaren 9tik 15era egindako XXXVI. Gabonetako euskal liburu eta disko kanpainaren barruan saldutako kopuruaren % 15eko ordainketa egitea. Saldutako kopurua 13.347,45 € izanik, ordaindu beharrekoa 2.002,12 € dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.03.335.00 partidatik.

##### Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari.-

Biztanleko 2 € ematearen irizpidea jarraituz, orain bakoitzari 6.055 €ko lehen zatia ordainduko zaio.

Ordainketa 2025eko aurrekontuaren ondorengo partida hauetatik egingo da:

- Goierri Telebistari 471.01.491.00 partidatik
- Goierriko Hitzari 471.02.491.00 partidatik

Proposamena egiteko erabili den biztanleen zenbatekoa Lazkaok 2024-01-01era zeuzkan biztanleen zifra ofiziala izan da.

##### Gerriko Kultur Elkarteari.-

2024ko ekainetik abendura bitartean aurrera eraman duen Mintzalagun jarduera dela eta dagokion bigarren eta azken ordainketa egiteko, 5.050 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

#### V.- KIROK ETA GAZTERIA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

##### Antzar Korrikalariak taldeari.-

2024 urterako onartu zen dirulaguntzaren bigarren zatia (% 40), 4.500 €-koa, orain ematea, San Silbestre lasterketaren antolaketa eta honen memoria aurkeztu dutela egiaztatzen ondoren.

#### VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea Berdintasun batzordeari dagokionez, Berdintasun teknikariaren aholkularitza lotu al den.

Alkateak dio oraindik ezetz, orain arte aholkularitza ematen duen enpresak komunikatu duela ez dutela jarraituko lan karga handia dutelako. Orain beste aholkulari baten bila dabiltzala.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.